

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko urriaren 16a. IX. urtea. 2.416. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Berrobik irabazi du Gipuzkoako Giza Proba Txapelketa

81 plaza, 8 zinta eta 2,35 metro egin dituzte berrobitarrek txapela lortzeko; eskualdeko beste taldea, Aiztondo, laugarren sailkatu da 07



Espero ez bazuten ere, berrobitarrek izan ziren garaile. J. AMONARRIZ



ZURKILLEN

→ **Emakume baserritarrak gogoan.** Azoka eguna izan zuten herene-gun, Zizurkilen, eta ohiko ekitaldiez gain, emakume baserritarrak omentzeko tartea ere hartu zuten. Juan Gorriti eskultoreak egindako 'Baserriko Argia' lanaren 10. urteurrena baliatu zuten, emakume baserritarrak eskulturaren inguruan bildu eta omentzeko. 04

Umorezko antzerkia ikusi ahal izango da ostegunean, San Estebanen

Tolosako auzoko jaiek etenaldi bat izan dute, baina segituan izango da ekitaldi sorta aukeran; igandean bukatuko dituzte festak 02

Gorka Aierbek zuzenduko ditu Abesbatza Lehiaketako topaketak

Txapelketa aurretik egin ohi duten ekitaldian hartuko du parte zuzendariak; Tolosako Hodei Truk abesbatza ariko da, besteak beste 02


Otaegi: «Azken enborra ebaki arte ez nuen neure burua txapeldun ikusten»

Zizurkildarrak ezustekoa eman eta Gipuzkoako Aizkolarari Txapelketa irabazi du; Jesus Mari Mujika ibartarra sailkatu da hirugarren 06

EZ GALDU
EHBilduko Marian Beitialarrangoitia eta EAJko Maria Eugenia Arrizabalagaren arteko
buruz burukoa

Urriaren 17an
19:00etan
Tolosako udaletxeko batzar aretoan

*jarraitu zuzenean: tolosaldea.hitza.info webgunean



Antolatzaileak:

TOLOSALDEKO hitza
ETA LEITZALDEKO





Uitzitik Leitzarako bidea egin zuten San Esteban auzoko hainbat gaztetxok eta helduk. HITZA

Ostegunean jarraituko dute San Estebango jaiek, umorezko antzerkiarekin

‘La Verdadera historia de Lola Puñales’ antzezlanaren eskainiko du La Patro taldeak, ostegun gauean

Izan ere, ostiralean urteroko krosa antolatu zuten, hamabosgarren aldiz aurten. Larunbatean, berriz, Uitz eta Leitza arteko ibilbidea oinez egin zuten auzoko hainbat gaztetxok eta helduk.

Egitarauko jarduerarik gehienak, ordea, ospatzeko dituzte oraindik San Esteban auzoan, eta ostegunetik igandera bitarte izango dute horretarako aukera.

Ostegunean, patata tortilla lehiaketarekin hasiko dira, eta *La verdadera historia de Lola Puñales*

les antzezlanaren izango da jardueraren nagusia.

La Patro taldea izango da oholtzaren, eta Askoa Etxebarrieta *La Pulgak* dantzatu du eurekin. Flamenkoa, umorea, misterioa eta ezohiko fenomenoak izango dira nagusi.

Igandera bitarte luzatuko da, beraz, San Esteban auzoko kulturastea, festa giroan, bazkari, afari, DJ, txaranga, buruhandi, bertsolari nahiz rock taldeekin.

• tolosa@hitza.info

Itzea Urkizu Tolosa

Ostegun honetan jarraituko dute, Tolosako San Esteban auzoan, pasa den ostiralean hasitako kulturaste eta jaiekin.

↓ Egitaraua

URRIAK 18, OSTEGUNA

- **19:00.** X. Patata tortilla txapelketa. Ondoren, afari-merienda egingo dute.
- **22:30.** Antzerkia: *La verdadera historia de Lola Puñales*, La Patro Teatro taldearen eskutik, eta La Pulga flamenko dantzariaren parte hartzearekin.

URRIAK 19, OSTIRALA

- **21:00.** Afaria, garagardo azokako menuaz, eta Muñoa eta Estanga bertsolariak giroa.

- **Ondoren.** DJ King.

URRIAK 20, LARUNBATA

- **16:00.** Mus txapelketa.
- **16:30.** Ginkana eta haur jolasak.
- **16:30.** Paseoa auzoan zehar, zaldi gurdietan eta pottoketan.
- **16:30.** Mural margotze parte-hartzailea, BOX. Aren laguntza.
- **18:00.** Buruhandiak.
- **19:00.** Txokolate jatea.
- **00:00.** RAS eta Pecahy Joke musika taldeen emanaldiak.
- **Ondoren.** DJ Puntzaka.

URRIAK 21, IGANDEA

- **09:00.** Diana herriko txistulariek.
- **10:00.** Trikitia auzoko base-rietan.
- **11:00.** Meza auzoko hildakoan alde, San Frantzisko elizan.
- **12:00.** Toka txapelketa gizonetako nahiz emakumezkoentzat, auzoko txarangak giroa.
- **14:00.** Auzoko babarrun jatea.
- **Ondoren.** Dantzaldia, Joxe Jabier Mendizabalen eskutik.

Abesbatza topaketa Gorka Aierbek zuzenduko du aurten

I. Urkizu Tolosa

Gorka Aierbek zuzenduko ditu, larunbatean, urteroko abesbatza topaketako kontzertuan parte hartuko duten taldeak.

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak Tolosako Ekinbide Etxearekin elkarlanean antolatzen du, urtero, Tolosako Abesbatzen Lehiaketaren aurretik, abesbatza topaketa; federatutako abesbatzen artean elkarlana sustatzeko jarduerak burutzen da helbururik behinena.

Tolosako Hodei Truk abesbatza parte hartuko du topaketan, eta eurekin batera, Zumaiako San Pedro abesbatza eta Irungo ametsa abesbatza ere ariko dira. Talde bakoitzak bere errepertorioari zentzuzko obra eskainiko ditu, eta ondoren, guztiek batera abestuko dituzte kantu batzuk.

San Frantzisko elizan izango da emanaldia, larunbat honetan, 20:00etatik aurrera, eta doakoa izango da sarrera.

Eskualdeko bost dantzarik parte hartu dute Segurako txapelketan

I. Urkizu

Igandean ospatu zen, Segurako 36. Euskal Herriko dantza txapelketa, eta eskualdeko bost dantzari aritu ziren oholtza gainean.

Lierni Kamio billabonatarra bosgarren postuan sailkatu zen Iker Sanz lezotarrarekin. Beñat Monfortek eta Naiara larranagak, berriz, Amasa eta Zizurkil ordezkatu, zortzigarren postua eskuratu zuten. Azkenik, Maria Camarero tolosarrak eta Goretti Galarraga ibartarrak, bederatzigarren egin zuten.

Bi pertsona atxilotu dituzte Villabonan, lapurreta egiteagatik

Elkarte batean lapurtzen saiatu dira; biek aurrekariak dituzte antzeko delituak egiteagatik

R. Calvo Amasa-Villabona

Herrizaingo sailak jakinarazi duenez, bi gizonetako atxilotu zituzten astelehen goizaldean, 03:30ak aldera, elkarte batean lapurreta egiteagatik.

Antza, elkartera sartzen ari ziren leiho batetik Ertzaintza iritsi zenean. Bi gizonetako korrika atera ziren ertzainak ikusterakoan, baina kiroldegi parean harrapatu zituzten. Herrizaingo sailak emandako datuen arabera, 32 eta 39 urte dituzte, eta atxilotuta eraman dituzte lapurreta egitea egotzita. Biek aurrekariak dituzte antzeko delituak egiteagatik, eta batek, gainera, igandeko espetxeko baimena zuela burutu zuen lapurreta.

Adinekoak zaintzeko eta prebentziorako hitzaldia, bihar, Alegian

Alegiako Udalak antolatuta, 17:00etan hasiko da bi gai jorratuko dituen hitzaldia, kultur etxean

I. Urkizu Alegia

Adineko pertsonentzako eskuragarri dauden zerbitzuez, nahiz etxeko istripuen prebentzioaz ariko dira, bihar Alegiako kultur etxean, 17:00etatik aurrera izango den hitzaldian.

Batetik, Sutondo zerbitzua aurkeztuko dute. Etxez etxeko otordu zerbitzu berria da, eta menpekotasuna duten pertsonentzat nahiz adinekoentzat antolatua da. Besteak beste, adinekoen bizi kalitateaz hobetzea da helburua, «euren gastuetara eta beharrezanetara egokituriko dieta orekaria, eta kalitatezkoa eskainiz».

Era berean, etxean gerta daitezkeen suteen aurkako prebentzio sistemak, eta suteen aurrean hartu beharreko neurriak ere hizpide izango dituzte

• alegiadea@hitza.info

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

LAN ESKAINTZAK

■ **Gidariak.** B gida baimenetik hasita, dokumentazio publikoa banatzeko langile bila gaitzuta. Interesa duen edonork dei dezala honako telefono zenbakira: 654 05 17 78.

■ **Mantenuko pertsonala.** Obra publiko nahiz zerbitzu orokorretarako langile bila gaitzuta. Interesa duen edonork,

dei dezala honako telefono zenbakira: 654 05 17 78.

LANGILEAK

■ **Etxeko lanetarako.** Etxeko lanak egiteko nahiz haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Interesa dutenek, dei dezatela 943 69 68 82 edo 606 52 19 92 telefono zenbakietara.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak →**Pello Atxukarro** ◊ Alderdi Popularreko ordezkaria

Euskara jatorrean hitz egiten du Pello Atxukarro, lasaitasunez. Alderdi Popularreko eskualdeko ordezkariak bere alderdiari botoa emateko dauden arrazoiak argitu ditu.



E. MAIZ

«Espainiako arazoa guztiona da, eta denon artean atera behar dugu aurrera»

Asier Imaz Tolosa

Lanetik atera eta kanpaina egitera, eta ondoren, berriro lanera. Hauteskunde atari honetan, horrelakoa da Pello Atxukarroren (Oartzun, 1955) bizi errotua. Oso lanpetuta dabilen arren, PP alderdiaren nondik norakoak kontatu nahi izan ditu orain 23 urte Tolosan bizi den sindikalista ohiak.

Zuen azken hauteskunde kanpaina, Espainiako Gorteetakoa, kritikatu izan da; hainbat galetan, gauza bat esan eta bestea egin duzuelako. Kanpaina honetan, herritarrekin kontaktuan, nabaritu al duzue eragirik zuen sinesgarritasunean?

Jendearekin hizketan hori sumatzen dut: sinesgarritasuna galdu dugula. Hala eta guztiz ere, gauzak argitu egin behar dira. Kanpaina hartan, PSOEk zorra %6koa zela esaten zuen, eta gero, %9,4koa zela ikusi genuen. Hori mila miloi askoko diferentzia da. Jendeak jakin badaki gure politikan ez dela zergen igoera sartzen, eta horretan sinesgarritasuna badugula uste dut. Gobernura sartu ginenean, ordea, diru falta zegoen, eta guri hori kudeatzea tokatu zaigu: nola aurrera atera dirurik gabek.

Hauteskunde hauetarako, zuen programan, 900 ideia baina gehiago bildu dituzue. Zeintzuk dira nagusiak?

Gure mezua betikoa da, gu ez gara aldatu, denek dakite PPK zer defendatzen duen: Euskal Herria Espainia barruan eta Espainia Batasun Europarrean. Herritarrek euren bizia egin ahal izateko lana behar dute, eta hori da gure lehen helburua, lanpostuak sortzea, eta horretan ari gara. Lanpostuak sortzeko oso garrantzitsua da herri batek konfiantza ematea, inbertsioak erakartzeko, eta horretarako herri moduan lasaitasun egoera adierazi behar dugu, subiranotasunari buruzko eztabaidetatik urrun.

Alderdi Popularra Eusko Jaurlaritzan sartzen baldin bada, Madriletik etorri litezkeen murrizketekin bat egingo al du?

Egia da beste erkidego batzuetan eztabaidak agertu direla, baita Alderdi Popularreko jendearekin ere, Extremaduran adibidez. Nik ulertzen dut jarrera hau, baina argi dagoena zera da: Espainiako arazoa guztiona dela, eta denon artean atera behar dugula aurrera. Erabakiak hartzea gobernuari dagokio, noski, erkidegoen iritzia entzunda. Hori bai, egoera honetatik lehenbailehen atera nahi baldin badugu, ez da komeni bakoitzaren arazoak arazo orokorraren gainetik jartzea. Euskadiko Alderdi Popularrak hori argi du, eta horretan lagunduko du, noski baietz.

Gizartearen zati batek neurri horien artean jarrera kritikoa du, horren adibide, bost greba orokor aipatu genituzake.

Sindikalista ohi bezala haserrea eta protestak ulertzen ditut, baina agintari ikuspegitik, nahiz eta ez gustatu, neurri hauetatik pasa beharra dagoela uste dut. Alemanian antzeko lan erreforma onartu zuten 2003an, eta begira nola dauden orain. Estatu ekonomia askotan etxera ekartzen dut, hobe ulertzen delako. Etxe batean krisia sortzen denean, gustuko ez diren neurriak hartzen dira; askotan ezinezkoa da seme-alabek eskatzen duten guztia ematea. Aurrera ateratzeko, ordea, hartu beharreko neurriak dira.

Konparaketa horretan, zorra nork sortu duen ere aztertuko beharko da, ezta?

Zor horretan guk ere zerikusia dugula uste dut. Gure aukeren gainetik bizi izan garela esaten da, eta nire ustez, ez da guztiz okerra. Maileguak lehen oso erraz ematen ziren, eta jendea animatu egiten zen eskatzera. Hor milaka milioi asko joan dira, eta ez daude inoren patrikan edo ez dakit non ezkutatu, erabili egin dira. Banketxeek izan duten zuloa hortik dator, baita dirua erabiltzeko izan duten moduagatik ere. Beraz, ezin da esan errudunak herritarrek direla, baina bai zerikusia handia izan dutela. Bestalde, zentzugabeke inbertsioak egin dira. Agintari askok bere herria oso

txukun utzi nahi izan du, botoak irabazteko. Horrek arrisku handia du, eta kontrolik ez zegoenez, kalte dezentekoa eragin du.

Independentziaren aurka zaudetela jakina da, baina herri baten erabakitzeko eskubidearen inguruan, zein da zuen iritzia?

Gu ez gaude autodeterminazio eskubidearen aurka. Erabaki guztiak non dagoen ikusi behar da. Bihar Arabak Euskaditik atera nahiko balu, guk ezetz esango genuke. Horrelako erabakiek ondorio asko dituzte, eta ez dira hain errazak. Hondakinen gaiaren inguruan herritarrei galdetzea, adibidez, ongi iruditzen zait, eta komenigarria litzateke, eragina ez delako horrenbestekoa. Subiranotasunari buruz galdetzea, ondorioak zeintzuk diren ere ez dakigunean... Gainera, konstituzioan jasota dago aukera hori, eta esaten du besteek ere zeresana dutela, hau da, Espainiako gainontzeko biztanleek.

Tolosaldean osasun publikoaren aldeko plataformak, sinadura bilketa medio, eskualdean ospitale publikoak eraikitzea, dirurik egon ezan

Asuncion publiko egitea, eta espezialitateen anbulatorioari lehentasuna ematea eskatzen du. Osasun sistema Eusko Jaurlaritzaren esku-mena dela kontuan hartuta, zer egingo zenuketezuek?

Duela bi urte edo, Tolosan mahai inguru bat egin zen gai honen inguruan, eta bertan izan zen alderdi kidearekin ados nago. Irtenbideak proposamen horien antzekoak izan beharko luke: zerbitzu

horiek publiko izatea bermatu beharko litzateke.

Euskal gizartean, euskal komunikabideen garrantzia nolokoa da?

Hizkuntzari dagokionez, euskal komunikabideen lana ikaragarria da, oso garrantzitsua. Euskalgintzan asko aurreratu da herri honetan, eta medioen lana ezinbestekoa da helburu horretan. Instituzioek hori babestea behar beharrezkoa da.

Irudia ◊ Anoeta**EH BILDUREN ALDEKO ATSEDENALDIA**

Ilgandean Euskal Jaia ospatu zuten Anoetan, eta azoka eguna Leaburun. Egun guztia lanean igaro ondoren, hainbat herritarrek EH Bilduri babesa erakusteko atsedena hartu zuten bi herrietan.

Anoetan udalaxearen aurrean jarri eta familia-argazkia atera zuten; BEC-eko mitinera joateko aukerarik ez eduki arren, hauteskunde atariko oihua herritik zabaldu zutela esan zuten. HITZA



Baserritar emakumeak omentzen dituen eskulturara kalejarian igo ziren. [1. irudia](#)



Jende asko igo zen Zizurkil Goko azoka berezira; 50 postutik gora jarri zituzten. [1. irudia](#)



Eguraldi txarra zela eta, Anoetako Euskal Jalko postuak pilotalekuan jarri zituzten; anoetarrek egun guztiko jala izan zuten, eta txekora errea izan zuten bazkalazeko. [2. irudia](#)

Azokez eta jaiez beteriko igandea

E. Maiz / *Anoeta/Leiburu/Zizurkil*

Igande oparoa izan zen Tolosaaldean. Anoetan Euskal Jala, Leiburrun Azoka Eguna eta Zizurkil XV. Azoka Berezia ospatu zituzten. Eguna ondo pasatzeko non aukeratu izan ziren eskualdean. Baserririk, baserriko produktuek, tresnek, artisau laneek eta

abereek kalea hartu zuten, igandean. Hiru herrietan, jende ugari ibili zen postuz postu, jai giroan murgildurik. Anoetan V. Euskal Jala ospatu zuten. Eguraldiak lagundu ez zuten, pilotalekuan sartu zituzten postuak. Musika, dantza, jatekoa, sariak... denetarik izan zen egun guztian zehar. Haurrentzat

ko talo tailerra eta sokatira ere izan ziren bertaratuen gozameneko. Erromeriarekin bukatu zuten eguna. Leiburriko azokan artisau eta baserriko produktuez gain, abereak izan ziren. Txikienek gurdiak, izuzkiak emateko aukera izan zuten, eta helduek, Julio Soto eta Sustrai Colina bertsole-

ariekin bertso bazkaria izan zuten, Ostatuan. Zizurkilgo azokak dagoeneko izen handia du. 15 aldiz antolatu dute, eta 50 postutik gora izan ziren ikusgai. Zer ikusia eta non erostia izan zuten bertaritutakoek. Aurtun, ordea, *Baserriko Arga* eskulturaren 10. urteurrena dela eta, ekitaldia berezia egin zu-

ten. Emakume baserritarren lana aitortzen duen eskulturaren ondoren, azalpen eta argazki osatutako panel txiki bat jarri dute. Txikienak ere gogoan izan zituzten antolatzaileek, eta surpegiak margotzeaz gain, pomeitan ibiltzeko aukera izan zuten. Auzkak gain, herri bazkaria ere egin zuten Intxaur pilotalekuan.

Tolosa



Anoeta



SEGAN IKASTEKO AUKERA

Euskal Jaiaren barruan, Segak ikastaroa izan zen, larunbatean, Anoetan. Bertarituiek segarekin bolara nola moztzen den ikasi zuten, eta baita sega zorrotzen ere. Talde polita aritu zen, segan. [1. irudia](#)



LAU EGUNeko FESTAK BUKATU DIRA

Mazorroz eta kolorez jantzitza jaiak bukatu dira. Berazubi auzoan, Ostegunean hasi zituzten, eta egun guztietan izan da festarako aukera. Jateko-rik eta edateko-rik ez da faltatu. Paella edota pitata tortilla txapelak egin dituzte. Bertso afaria eta zahagi ardoa ere izan dira, eta babarrun jatea

ere egin dute. Musika ere garrantzia izan du Berazubi auzoan, eta kontzertuez gain Djek jarri dute gauetan festarako giroa. Haurrek ere izan dute bereziki ondo. Paella edota pitata tortilla txapelak egin dituzte. Bertso afaria eta zahagi ardoa ere izan dira, eta babarrun jatea

Tolosa



'STREET VIEW' AUTOA TOLOSAN

Street View autoa Google-k irudiak jasotzeko erabiltzen du. Hilaren 11n, Tolosako kaleetan barrera ibili zen. 360 graduko irudi panoramikoak jasotzen dituzte ibilgailuarekin. [1. irudia](#)

Ibarra



Gaztelu/Orexa



ARANALDERI ELKARTASUNA

Maite Aranalde preso ibartarrari elkartasuna adierazi diote 50 bat lagunek, Hilaren 12an, ostiralean, izan ziren preso dagoen Vinnonneko espetxean. Etxetik ehunka kilometroa dagoen Aranalderi babesa agertu zioten. [1. irudia](#)

ULIKO ERROMERIA OSPATUZ

Urteroko ohiturari jarraituz, hilaren 12an, orekarrek eta gazteluarrek bazkaria egin zuten. Uli mendian eguraldi txarra zela eta, Gazteluko Errotze azpiko elkartearekin elkartu ziren. Bazkalostearen, giro aparta sortuzentziki doinuekin, eta tokian jolastuz. [1. irudia](#)



Kirolak >

↓ Kirol emaitzak

PILOTA

LEHEN MAILAKO LAU T'ERDIKO TXAPELKETA	
Saralegi-Albisu	22-12
Olaizola I-Idoate	22-8

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA 4. jardunaldia	
Ibarra-Egintza	10-2
Gora-Tolosala Hirukide	3-8
S. Jorge Santurtzi-Laskorain	1-6

Sailekpena

1. Ibarra	12p
2. Bilbo	10p
3. Soloarte	9p
4. Tolosala Hirukide	8p
9. Laskorain	6p
10. Egintza	4p

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA Bosgarren jardunaldia	
Tolosa CF-Aurrera	0-0

Sailekpena

1. Hernani	15p
2. Tolosa	10p
3. Berio	10p
4. Oiartzun	9p

AIZKORA

GIPIZKOAKO LEHEN MAILAKO TXAPELKETA Finala	
1. Joseba Otaegi	27:01
2. Iñaki Azurmendi	27:30
3. Jesus Mari Mujika	30:02
4. J.M. Olasagasti	31:31
5. L. Txapartegi	34:19

GIZA PROBA

GIPIZKOAKO TXAPELKETA Finala	
1. Berrobi	81 plaza, 8 zinta eta 2,35 metro
2. Urretxu	81 plaza, 4 zinta eta 0,63 metro
3. Orío heldu!	79 plaza, 3 zinta eta 2,82 metro
4. Aiztondo	73 plaza, 4 zinta eta 0,68 metro

SASKIBALOA

Maila nagusia Hirugarren jardunaldia	
Autocares Artieda	58
Bide Bide Donosti	78

Otaegi: «Poz handia ematen du irabazi dutenen artean norberaren izena ikusteak»

Lehen mailako Gipuzkoako Aizkora txapelketa irabazi du Joseba Otaegi zizurkildarrak

Imanol Garcia Landa

Pozik dago Joseba Otaegi zizurkildarra, lehen mailako Gipuzkoako Aizkora Txapelketa eskuratu eta gero. «Ikusita zein aizkolarik irabazi duten aurretik txapelketa, horien artean norberaren izena egoteak poz handia ematen du», esan du Otaegik. «Espero gabeko txapela» izan da Otaegiren hitzetan: «Lehenengo urtean bigarren egin nuen eta beste prestakuntza batekin iritsi nintzen. Aurten gutxiago prestatu naiz, baina egia da gorputza freskoago nuela. Duda nuen nola erantzun-go nuen finalean».

Garaipena ez da izan erraza. Bigarrenari, Azurmendiri, 30 segundo atera zizkion Otaegik: «Pare parean aritu gara eta azken enborra ebaki arte ez nuen neure burua txapelkun ikusten. Minutu erdia ateratzen nion, baina enbo-



Joseba Otaegi, txapelarekin, garaipena eskuratu ostean. HITZA

rraren gainean zaudenean hori ez da tarte handia». Enborrak ebakitzten batera zihoazela ikusten zuen Otaegik, baina ez zekien zer hazki zenbateko abantaila zuen:

«Nahikoa duzu zure lanarekin, bestearenaren begira egoteko». Lehian ari zela bere kezka izan zituela ere azaldu du aizkolarik zizurkildarrak: «Fondo motzago

nengoen, eta ez nekien abantailari eutsiko nion». Bestetik, bere burua faboritotzat ez ikusteak aldeko izan zuela esan du Otaegik.

Otaegiren txapelaz gain, beste ezustekoa Olasagasti laugarren postuan ikustea izan da. «Ez dakit nolako prestakuntza izango zuen», esan du Otaegik. «Nik egindako lanarekin oso gustura nago. Gainera denbora nahiko onak izan dira, egurrak ere hala-koak zirelako». Aurrera begira, lehen mailako Euskal Herriko Txapelketaren kanporaketan parte hartuko du, urriaren 28an. Hamabi aizkolarik ariko dira eta sei sailkatuko dira finalerako. 2009an eta 2010ean lortu zuen finalerako txartela, eta iaizkoan segundo bat baino gutxiagoatik ez zen egon sei onenen artean.

Mujikak postu bat igo du

Jesus Mari Mujika ibartarrak hirugarren postua lortu du, lan txukuna eginez eta Joxe Mari Olasagastiren aurretik sailkatuz. Modu horretara iaz egindako laugarren postua hobetu du aizkolarik ibartarrak, eta datorren urtean Gipuzkoako lehen mailan aritzea ziurtatu du.

Beotibar Zesta Puntakoak, Europako txapelkun

Beñat Lopez eta Arkaitz Izagirre tolosarrek 22 urte azpiko txapelketa irabazi dute Miarritzeren aurka

I. Garcia Landa Tolosa

Beotibar Zesta Punta taldeko Beñat Lopez eta Arkaitz Izagirre tolosarrek Europako 22 Urte Azpiko Txapelketa irabazi dute. Bigarren aldiz parte hartu dute lehiaketa horretan Beotibar tal-

dekoek eta hau da lehenengo aldiz txapela janzten dutena. Hegoaldeko, Ipar Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako taldeek parte hartu dute txapelketan.

Asteburuan jokatu dituzte finalerdiak eta finala, Maulen. Biak ala biak partida gogorak izan dira. Noainen kontra jokatu zuten finalerdia eta 15-8, 13-15 eta 10-8 egin ondoren sailkatu ziren finalerako. Miarritzeren aurka jokatu zuten eta 15-13, 13-15 eta 10-4 egin zuten finalean. Beotibar Zesta Punta elkartearentzat garaipen garrantzitsua izan da.



Arkaitz Izagirre eta Beñat Lopez pilotariak. HITZA

Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



GREGORIO HERNANDEZ CORCHETE
(Leitza, 1982-X-15)

30 urte zu gabe
eta gure oroimenean bizirik.

LEITZAKO ZURE LAGUNEK

Leitza, 2012ko urriaren 16a

Berrobik lortu du Gipuzkoako Giza Probako txapela

Gutxiagatik irabazi diote berrobitarrek Urretxuko taldeari; Aiztondo taldeak laugarren amaitu du

Imanol Garcia Landa

Berrobik eskuratu du Zizurkilen jokatutako Gipuzkoako Giza Proba Txapelketa. «Ez genuen irabaztea espero», azaldu du Iñaki Mendia taldearen prestatzaileak. «Orik talde oso ona du eta entrenamenduetan ikusten genuen nolako maila duten. Beraien atzetik sailkatzea zen helburua, baina azkenean irabazi egin dugu. Zor-

tea ere aldeko izan dugu, probalekua gure txandan hobeto zegoelako, baina irabazten denean zortea ere kontuan hartu behar da».

Mendia oso pozik agertu da lorpenarekin: «Urte osoko plangintza egin dugu. Uztailean jokatu genuen kanporaketa eta ordudunik ere oso serio aritu gara. Hain justu, herri kirolean hori falta da askotan, plangintza bat izatea. Guk lanak ondo egin ditugu eta horren emaitza da ere txapela lortzea». Berrobik 81 plaza, 8 zinta eta 2,35 metro egin zituen 15 minutuko bi saioetan. Urretxu oso gertu geratu zen, 81 plaza, 4 zinta eta 0,63 metro eginez. Orio izan zen hirugarrena, 79 plaza, 3 zinta eta 2,82 metroko distantziarekin.



Berrobi taldekoak ahalegin betean. JONE AMONARRIZ

Laugarrena eskualdeko beste ordezkaria izan zen, Aiztondo, 73 plaza, 4 zinta eta 0,68 metro eginez.

Berrobi eta Urretxu izan ziren lehenak parte hartzen eta hauen artean lehia estua izan zen. 15 minutuko lehen saioan plaza bateko abantaila hartu zuen Berrobik eta bigarren saioan asko gerturatu ziren urretxuarrak. «Plaza erdia ere ez diegu atera Urretxuko-
ei», esan du Mendiak. «Ikusteko

oso zirraragarria izan da. Gu azkenean leher tuta bukatu dugu, baina eutsi ahal izan dugu. Entrenamenduetan lortutako fondoak une horietan eusten lagundu digu». Mendiak Berrobi gisako herri txiki batean talde bat osatzearren zailtasuna nabarmendu du, eta, bestalde, herritarrek emandako animoak eskertu ditu, bai uztailean jokatutako kanporaketan eta baita herenegun izandako finalean ere.

Saralegik eta Olaizola I.ak aurrera, Lau T'erdikoan

I. Garcia Landa

Ekaitz Saralegi amezketarrak eta Leitzan bizi den Asier Olaizolak Lau T'erdiko txapelketako euren partidak irabazi dituzte asteburuan. Saralegik Albisu hartu zuen mendean, 22-12, Tolosako Beotibar frontoian jokatutako partidatan. Hurrengo neurketa ere Tolosan jokatuko du, hilaren 22an, Retegi Biren aurka.

Olaizola I.ak Lekunberrin jokatutako eta ezusteko markagailua lortu zuen Idoateren aurka, 22-8 irabaziz. Hurrengo partida Bilbon jokatuko du, hilaren 20an, Berasaluze VIII.aren aurka.

Ibarrak irabazi du Egintza billabonatarren aurkako derbia

Erredakzioa

Areto futboleko hirugarren mailan eskualdeko derbia izan da asteburuan. Ibarrak Villabonako Egintza taldearen aurka irabazi du, 10-2 eginez, eta sailkapeneko lehen postuan jarraitzen du, jokatutako partida guztiak irabazita. Egintza 10. postuan dago orain.

Eskualdeko beste bi taldeek garapena eskuratu dute. Laskorainek 1-6 irabazi du San Jorge Santurtzi taldearen aurka. Bigarren partida irabazi dute jarraian eta orain 9. postuan daude tolosarrak. Tolosala Hirukide 3-8 gailendu zaie Bilboko Gora taldeari, eta maila horretan berria izan arren, laugarren postuan daude.

Ovalla eta Gartzia irabazle, Tolosako Herri Krosean

I. Garcia Landa

270 korrikalarik parte hartu zuten San Esteban auzoko elkarteak antolatutako Tolosako Herri Krosean. Hicham Ovalla santurtziarra izan zen mutiletan lehena eta emakumezkoetan Iraia Gartzia zornotzarra. Unai Arroyo tolosarra izan zen bigarrena gizonzkoetan, eta beraz, lehen herritarra, eta hirugarrena Eneko Garin billabonatarra helmugaratu zen. Emakumezkoetan podiumera igo ziren beste bi korrikalariak Lurdes Oiartzabal lezoarra eta Rosi Talavera hendaiarra izan ziren, hurrenez hurren. Lehenengo herritarra Amaia Arbillaga izan zen. Lasterkariak euriari aurre egin behar izan zioten.



Hicham Ovalla eta Iraia Gartzia, San Esteban auzoan jarritako helmugara iristen. R. CALVO





EUSKADI AURRERA



eaj
pnv

urkullu.eu

PROGRAMA



Hitar emanen dit.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta/Aldea: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza/Aldea: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK **Galtzaundi euskara taldea** eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile
'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketan, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil
Hitza-k Bai Euskarari
Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Irudia **Amezketan**



GAZTELEKUA INAUGURATU DUTE

Amezketako gazteek larunbatean inauguratu zuten Gaztelekua. 12 eta 17 urte arteko gazteei zuzendutako gunea da eta gazte talde ederra hurbildu zen inauguraziora. Lehenik eta behin, udaleko arduradunek eskerrak eman zizkieten gazteei, azken hilabeteetan egin duten lanagatik, izan ere, beraiek izan dira Gaztelekua nolakoa izan behar duen erabakitzen lagundu dutenak. Ondoren, Gaztelekuak dituen txokoak ikusi zituzten, eta merienda egin zuten, gero. E.MAIZ

Agurrak



Urte askoan!
Naia Saizar Sarasola (Asteasu).
 Gaur 3 urte! Zorionak eta muxu asko, etxekoan eta Migelen partetik.

AGURRAK
 943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak

Agenda

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Box.A elkartearen *Pornografia* izeneko erakusketak, Aranburu jauregian.
- **Tolosa.** Mariona Masgrauren txotxongilolariaren lanak bilduz dituen *Mariona Masgrau.Bidaia bat txotxongiloen mundura* erakusketa, Topic zentroan.
- **Alegia.** Jose Enrike Zeberiorenen margolanak ikusi daitezke hila-bete bukaerara are, erretirodunen tabernan.

sak Amezketan, Alegian eta Ikaztegietan egingo ditugodialdiak. Izena Abaltzisketa, Altzo, Alegia, Amezketan, Orendain, Baliarrain eta Ikaztegieta-ko udaletxeetan eman behar da, hilaren 18a baino lehen. Hilduek 10 euro ordaindu behar dute eta ikasle eta langabetuek, 7 euro. Tolosan Galtzaundi euskara taldeak antolatutako autobusa. Izena Galtzaundiren egoitzan eman behar da, eta bazkideek 10 euro ordaindu behar due, eta ez direnek, 12.



Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13. Gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako ezarrien eta iritzien erantzukizunik.

DEIALDIAK

- **Alegialdea-Tolosa.** Nafarroa Oinez jaia urriaren 21ean izango da, Zizur Txikian, eta autobusa antolatutako Alegialdean eta Tolosan. Alegialdeko autobu-

30 min te ga

7. EDIZIOA

IMH, Elgoibar

2012/10/24

8:45-14:30

Antolatzailea: Mairu Errotañaren Institutua
 Kolaboratzaileak: Sukio Auzolanak, Elgoibarreko Foru Auzolanak, Elgoibarreko Udalekua, AIZOAEK

30+10 mintegia
hizkuntza-kudeaketa enpresan

Jardunaldiaren edukia:

Mintegiararen sarrera
 NEURKETA POLITIKA BARRUGOIBERRITZA
 ERREPENTE ZUZUNTZARITZA BARRUKA
 ELKARRIEN BOLA

Hitzaldietak

- Europa Bakoiztasunaren enpresa-garapimendua: aldeak eta eraginak. LAMORE, BURGOSI, ERRI, ERRI
- Produktu-herrietatik geroztiko enpresa sustatzeraren garrantzia. YERRELLA, ELKARRIEN ARDURARITZA
- Management eta lideratze-gaitasuna. ELKARRI ERRI, ELKARRI ERRIEN ERRI.

Mahai ingururak

- Inoiz ezin utzirik, Ingulitako eta Inoizko. ERRI, ERRI, ERRI, ERRI
- Lasterki Produktuak eta Tunturketa. Lasterki Produktuak, LAMORE
- NEURKETA BARRUGOIBERRITZA, ELKARRI, ELKARRI, ERRIEN ERRI.

ETikurrak

- ERRIEN BARRUGOIBERRITZA Inoizko
- ERRIEN BARRUGOIBERRITZA Inoizko
- ERRIEN BARRUGOIBERRITZA Inoizko
- ERRIEN BARRUGOIBERRITZA Inoizko

Informazio gehiago:
www.imh.es

Informazio gehiago:
www.imh.es

IMH, Auzoaren 1 - Elgoibar